

ZAM

ZORROTZ MORROTZ

53. ZIKUA 2018ko IRAILA



TOÑO VALDIVIESO

ARTISTA PLASTIKOA ETA
MARIJAIAREN EGILEETARIKO BAT

TUSITALA ERAKUNDE SOLIDARIOA

Allianz



Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

-Mugikorrik soinean? Kutxabank aldean-

- | Mugikorraren bidez ordaindu
- | Txartelak piztu eta itzali
- | Bizumen bidez dirua bidali eta jaso
- | Erosketak finantzatu
- | Intereseko informazioa jaso
- | Eguneroko kontuak kudeatu

KUTXABANK
APP-ak **DEN-DENA,
MUGIKORREAN.**

ERRAZ
HURRITU
ORAIN 

Kutxabank, S.A.
Kale Nagusia, 30 32 48001 Bizkaia
I.N. AY5623097. Edozein Merkataritza
Enpresaren inbentarioa. 0226. Inorma. 3. Liburuak
89 98729 0144. 1. Faltak. 1. inbentarioa



...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?

ESKAINTZarik ONENA ZORROTZatik IRTEN BARIK

**Berton
kontsumitu**



Gora Zorrotzako jaiak!

Oporraldiaren ostean hemen gaude berriro. Ederto pasa izana es-
pero dugu. Urtero bezala, ikasturteari hasiera emango diogu au-
zoko jaietan murgildurik. Parte hartzera animatzen zaituztegu Jai
Batzordeak prestatutako ekitaldi guzti eta anitzetan. Ezin ahaztu
Jai Batzordeak jaiak prestatzeko egindako eta txalotu behar den
lan izugarria.

Dakizunez ugariak dira Zorrotzak lortu behar dituen helburuak.
Eta gogor arituko gara lanean egia bihurtzeko. Oso garrantzitsuak
deritzegun horietako batzuk gogoratuko ditugu: FEVEko geltokia-
ren lurperaketa; elkarbitzarekin zerikusia duen guztia; Giza-hez-
kuntzako proiektua; jaietan aurkeztuko dugun belaunialdiarteko
proiektua; garraioa eta irisgarritasunarekin lotutako arazoak; ku-
tsadurarekiko ardura... eta abar luzea.

Honengatik guztiagatik adi egotea eskatzen dizuegu, bai-
na batez ere, jaietan ondo pasatzea opa nahi dizuegu.

Gora Zorrotzako jaiak!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan
jasotzeko, bidali mezu
elektroniko bat
zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora,
gaiaren laukian
"harpidetza" jarritz

ZM

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldzakaria
53. zenbakia. 2018ko iraila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: zmorrotz@gmail.com

 facebook.com/ZorrotzMorrotz

 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saúl Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldzakariak Bilboko udalaren diru-laguntza
jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra



**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

GORA HERRIA!

★ *independentzia!*
SOZIALISMOA!



ASKABIDE
kultur elkarte
Zorrotza

Zorrotzako jaiak, gero eta anitzago

Igor Gutiérrez

Irailaren 21 eta 30aren artean izango dira gure auzoko jaiak eta ohiko egitarauaz gandi, badira berritasunak. Aurten, Taldeen Koordinakundetik sortutako ekimen berri bat estreinatuko da: Kulturarteko Topaketa. Lehenengo larunbatean, goizean, gure auzoan bizi diren jatorri eta kultura ezberdinetako jendeek bat egingo dute, elkar eza-gutu eta nork bere jakiak, musika, ohiturak eta abar partekatzeko.

Bestetik, aipatzekoa da tabernek beraiek paratutako egitasmoak gora doazela, jai

eremua dibertsifikatu eta egitaraua aberas-ten dutelarik. Jai Batzordearen aburuz, hori da jarraitu beharreko bidea, izan ere ezingo lituzkete egungo jaiak aurrera eraman hainbat eta hainbat laguntzailerik gabe.

Azkenik, barraken prezioek behera egingo dutela iragarri dute eta, horrez gain, bi egu-netan, irailaren 26an eta urriaren 1ean, alegia, prezio murriztuak izango direla.

Egitaraua osorik ikusteko edota deskargatzeko, bilatu Jai Batzordearen profila facebook-ken, edo ikusi www.zorrotza.org webgunea.



Igor Gutiérrez

Aste Nagusiko lehen igandean ehun zorrotzar baino gehiagok parte hartu zuten Txinbotarrak konpartsak antolatutako lehen Zorrotza Egunean. Goizean, umeentzako tailerrak eta txosna barrutik ezagutzeko bisitak antolatu ziren eta bazkaltzeko, bi paella erraldoi prestatu. Eguzkiak gupida gabe

jo arren, auzokideek otorduaz gozatu eta solasaldi ederra egin zuten. Segituan, Marriaiarekin talde-argazkia atera eta arratsaldeko egitarauari lotu zitzaizkion, Fabe de Fuka elektrotzarangaren erritmoari jarraiki. Ekimen horren xedeak Aste Nagusia eta auzoko konpartsa barrutik ezagutzea dira eta datorren urteetan berorri eustea asmo dute Txinbotarrak konpartsan.

Emakumezkoei segurtasuna eman eta erasoak saihestu nahi dizkien “Agrestop/Erastop” doako aplikazioa jaitsi daiteke

Doako aplikazioa da Android eta iOSerako. Erasoak ekiditeko plataforma honek berehala abisatzen dio Bilboko Udaltzaingoaren zentro koordinatzaileari, deirik egin behar izan barik.


Zorrotz Morrotz

“Agrestop/Erastop” doako aplikazioa erasoak ekiditeko plataforma bat da. Lehenik eta behin Bilboko emakumeentzat pentsatu da baina aurrerago herritar guztiengana zabaldu nahi da. Indarkeria matxista jasan duten emakume talde batek eta emakumeen elkarte batzuek lagundu dute azken probetan.

Probak egin ondoren, aplikazioa publikoa da eta nahi duten guztiek jaitsi ahal dute. Hau ez da jaietarako soilik sortutako aplikazioa, herritarrei Udaltzaingoarekin zuzenean kontaktatzeko aukera emango dion tresna bat baizik, beti eta zerbitzu publiko modura. Aplikazioak funtziona dezan, datu pertsonalak sartu behar dira interesdunaren telefono mugikorra geolokalizatzeko. Botoi bat sakatzuz, abisuak Udaltzaingoaren koordinazio zentroan zuzenean jasoko dira. Ez dago deitu beharrik. Aplikazioaren bitartez berehala abisatzen da eta Udaltzaingoaren esku-hartzea modu automatikoa jartzen da abian, mugikorrak erakusten duen lekura joateko. Horixe da aplikazio honen balioetako bat, berehalako abisua deirik egin barik. Horrela, erasoak jasaten ari den pertsonak errazago eman dezake abisua.

Aplikazio honek hiru funtzionaltasun dauzka:

- **Eraso bat jasaten ari naiz.** Larrialdi-takoto botoia da. Botoi hori sakatzan duenak berehalako seinale bat bidaliko dio Udaltzaingoari bere geolokalizazioarekin. Horri esker, agenteak laguntza ematera joan ahal izango dira azkar batean.
- **Salatu eraso bat.** Edozein indarkeria-ekintza ikusten duenak salatu egin dezake.



Aukera horrekin, alerta bat bidaliko zaio polizia hark esku har dezan.

- **Etorri nirekin.** Aldez aurretik, norbere kontaktuetan adierazi behar da nor izango den laguntzailea. Erabiltzailea etxera doan bitartean, laguntzaileak mapa birtual batean ikusiko ditu haren urratsak. Uneren batean erabiltzailea bidetik aldendu edo ez duela aurrera egiten ikusten badu, laguntzaileak Udaltzaingoari dei diezaiok.

Segurtasunaren Aldeko Itunean jaso ziren 35 neurrietako bat da honako hau, Bilboko Udaltzako alderdi politiko guztiek onartu zutena.



Diseinu grafiko:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net**

María Gómezen omenez eskultura bat eskatzeko sinadura bilketa hasi dute

Aitor Marín

Uztailen zendu zen María Gómez, Compostela tabernako sukaldaria, oso ezaguna zen auzoan. Honen adibide argia da abuztuan Facebookeko “Mi barrio Zorrotza” izeneko taldetik abiatu duten sinadura bilketa, María omentzeko eskultura bat eskatzen duena hain zuzen ere. Taldearen arduradunetako den Juanjo Pérez baieztatzen duenez: “Ideia taldean atera zen. Taldeko arduradunen artean hausnartuz, familiaren adostasuna lortu ondoren, sinadura bilketari ekitea

adostu genuen. Auzo Elkartearen aholkuak ere jaso ditugu, eta eman beharreko pausuak azaldu dizkigute”.

Eskaria urrian udaletxean aurkezteko asmoa agertu du Juanjok, eta bultzatzaileen asmoa gorputz osoko eskultura bat jartzea da Abaro eta Astillero kaleen arteko berdegunean. Horrela, eskultura hori Mariak lan egin zuen tabernaren aurrean kokatuko litzateke. Bultzatzaileek azpimarratzen dutenez, “María ez ezik, eskulturak auzoko emakume langile guztiak goraipatzeko balioko luke”.

Ekimenak alde eta kontrako iritziak piztu ditu sare sozialetan eta auzoan, eta momentuz 1200 sinadura inguru bildu dituzte eta 2500eraino heltzea espero dutela dio Juanjok. Auzoko hainbat taberna eta saltokitan sinatu daiteke, hala nola Compostela tabernan, Magia Sweet, Biritxi, Jai Alai...

María Gómezi buruz gehiago jakin nahi duenak gure aldizkariaren 29. zenbakira jo dezake. Bertan Igor Gutierrez kideak egin-dako elkarrizketa topa daiteke. Hona hemen esteka interneten irakurtzeko: www.issuu.com/zorrotzmorrotz/docs/zorrotzmorrotz29.



2009an Zorrotz Morrotz 29. zenbakian Mariari egindako elkarrizketa

Euskaraldian izena emateko epea zabaltzear da

Zorrotz Morrotz

Hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa da Euskaraldia, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean euskaraz egitea proposatzen duena. 16 urtetik gorako herritar orok eman dezake izena ariketa honetan:

Ahobizi izateko, euskaraz hitz egiten jakin behar da. **Belarriprest** izateko euskara ulertu behar da. Irizpideak betez gero, norberak erabakiko du zein roletan izena eman.

Izan ere, Euskaraldian parte hartzeko izena eman behar da, eta horretarako epea irailaren 20an zabalduko da. Jaietan informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko aukera izango duzu hilaren 23an goizez eta 29an arratsalde, horretarako jarriko den postuan. Internet bidez ere eman dezakezu izena, www.euskaraldia.eus webgunean.

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Ahobizi edo Belarriprest ikurra aldean eraman, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa egingo dugu!

Done Mikel auzunea

Auzune hau Zorrotza Kastrexana gainean dau, feveko trenbidea, auzoko institutue ta Usandizaga musikariagaz muga egiten. Etxalde honek lau etxetalde dekoz, mile bederatzizirehun eta hirurogeitabaten ingurun amaitute, batipat auzoko biztanleei aukera barriek emoteko egin zan. Izena hartu eban auzoan zegoen Mikel deunaren baselisiatik, landan zegoena eta 1947n Milagrosa eliza egin baino lehen auzoko kristau patroie zana.



Mikel deuna baselisa, Landan zegoena



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46

*El 10 de
Fray Juan*

Pintxo askotarrikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

“ Bertakoekin alderatuta oso soldata ona daukat. Atzerritarra izateak dirudi horren gakoa ”



IBAN GONZÁLEZ

Bizitokia: Lima (Perú)

Noiztik: 2012ko irailetik

Adina: 36 urte

Lanbidea: Gizarte laguntzailea.

Unibertsitateko programa baten bidez Limara heldu zen Iban orain dela 6 urte. Bikotekidea topatu zuen han eta familia sortzeko nahian dabilta. Bertan soldata duina izatea zaila dela, baina hori lortuta ondo bizi daitekeela dio. Eta han bizitzea arriskutsua izan badaiteke ere, Limatik oso hurbil leku ikaragarriak topa daitezkeela.

Testua: Ainara García

Nolatan eta zergatik joan zinen Limara?

Nire ikasketak zirela eta, unibertsitateko programa baten bidez 6 hilabete igaro nituen Limako umezurtz-etxe batean bolondres. Nahiz eta latza izan, asko gustatu zitzaidan gure lanarekin lortutakoa eta kontratu on bat eskaini zidaten. Horrez gain neska eder bat topatu nuen, gaur egun nire bikotekidea dena, eta bertan bizitzea erabaki nuen.

Ezberdina da bertako bizimodua auzokoa-ekin alderatuta?

Hiriko gunearen arabera arriskua somatu dezakezu eta kontuz ibili behar zara, nire auzoan ez dut sekula horrelakorik bizi. Bestalde, hitz egiteko era oso barregarria iruditzen

zait baina gozoa ere bai. Adibide moduan milaka txikigarriekin hitzegitea, Don/Doñaren erabilera... eta askotan esaten zidatena: euskaldunak oso zuzenak, gogorak eta oihukariak omen gara, eta haiei “bonito” hitz egitea gustatzen zaie, zuzenean “ez” esatea miraria da.

Gogorra egin zitzaizun bertako lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Momentuaren eta egoeraren arabera... gogorra baino gogorragoa. Baina pixkanaka-pixkanaka moldatzen zara.

Nolakoa izan da Liman integratzea?

Erraza izan da neska lagunaren laguntza izugarriagatik eta nire lanagatik, oro har estima handian gaituzte bolondres edo giza lagun-

tzaileok. Behin ezagutua, adeitasuna izugarria da, haien aldetik harrera aparta izan da.

Zer da handik gehien gustatzen zaizuna Zorrotzarekin alderatuta?

Hurbil topatu dezakezun natura basatia. Zuhaitzak, mendiak, ibaiak, aintzirak... ikaragarriak dira.

Eta gehien harritu zaituena?

Giza ezberdintasun ikaragarriak eta moteltasuna.

Eta bizien duzuna faltan?

Zalantzarik gabe, familia eta lagunak. Hauek dira zalantzarik gabe atzerrian egotearen alde txarrenak.

Erraza al da bertan lan duin bat lortzea?

Ufa, galdera zaila. Ezetz esango nuke, ezberdintasun handiak daudelako giza mailaren arabera, eta beti bezala aberats gutxi batzuk izanda, behartu ugari daude eta dinamika aldatzeak ezinezkoa dirudi. Nire kasuan, soldata oso ona da, eta atzerritarra izatea horren gakoa dela dirudi.

Janarira moldatzea kostatu zitzaizun?

Janariak espainiar gastronomiaren eragin handia du eta oso anitza da. Herriaren arabera ere guztiz ezberdina da. Niri gauza berriak probatzea betidanik gustatu zait, beraz, ez dut inolako arazorik izan.

Bertatik bidaiatzeko aukera izan duzu?

Peruko toki eta errealitate ezberdinak ezagutzen saiatzen gara. Seme-alabak izan nahi

ditugu eta momentu horretan azkoz zailagoa izango da bidaiatzea.

Zorrotzara maiz etortzen zara?

Normalean urtean behin edo birritan. Noiz-bait niregana badatoz apur bat gehiago atzeratzen dut etorraldia.

Nolakoa da bizitza Liman?

Leku ederra da bisitan joateko baina zaila da bertan bizitzea. Kriminalitatea oso handia da, arrisksua da taxiren bat hartzea, kaletik bakarrik joatea, bankutik dirua atera... Gainera giza desparekotasun ikaragarria dago. Trafikoa benetan beldurgarria da. Hau guztia jakinda, zure ingurua ondo ezagututa eta familia eta lagunak hurbil izanda, oso bizitza ona eraman daiteke, beti ere aintzat hartuz nire soldata ez dela bertakoena bezain eskasa, eta honek asko laguntzen du.

Zein litzateke zure ustez Limatarren ezau-garririk adierazgarriena?

Nolabait esanda, ganoragabekeria eta geldotasuna. Baina aldi beran, ongi heziak, eta tratuan adeikorrak eta gozoak dira.

Bertan geratzea, erabaki erraza edo denborarekin hartutakoa izan zen? Bueltatzeko asmorik baduzu?

Lagunak eta familia urrun egotea ez da erraza. Jakina sakonki pentsatu nuela eta hurbilekoekin hitz egin nuela. Oraingoz hemen ondo gaude, ez zait damu. Pertsonalki eta profesionalki oso aberasgarria izaten ari delako. Hori bai, gauzak aldatu daitezke eta pozik bueltatuko nintzateke auzora.



**IMPULSANDO
ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefona: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

TUSITALA ERAKUNDE SOLIDARIOA

Gazte eta solidarioak

Afrikako herrialde desberdinetan burutzen diren hainbat proiektutan laguntza ekonomikoa emateko helburuarekin Zorrotzako 5 lagunek "Tusitala erakunde solidarioa" sortu zuten 2016ko urrian.



Testua: Zuriñe Vila eta Naroa Peña
Argazkiak: Tusitala

Alazne Arriortua, Nagore López, Iraide Mentxaka, Jon Puente eta Txaber Zorrilla, Zorrotzako bost gazteek, alde batetik bidaletzeko zaletasuna eta bestetik herrialde pobreetan laguntza eskaintzeko nahia bat eginez "Tusitala Erakunde Solidarioa" sortu zuten. Hasiara batean haien kabuz bidaia desberdinak egiten zituztenean dirua ematen zieten laguntza behar zuten hainbat erakunderi. Gero, haien ezagunen laguntzaz, bigarren eskuko liburuak saltzen zituzten Bizkaiko herri desberdinetako jaietan jartzen zuten postuan, eta hortik lortutako dirua ere herrialde behardunetako erakundeek ematen zieten. Baina liburak saltzeko salmahaia jarri ahal izateko hainbat oztopo

izan ondoren, erakunde formal bat sortzea erabaki zuten. Ez zen erraza izan, baina keimentsu lan egin ondoren erakundea fundatzea lortu zuten.

Tusitala erakunde solidarioak bere lehenengo dirulaguntza Kenian dagoen umezurtz-etxe bati eman zion pasa den urteko uztailean. Aurten, berriz, emango den dirulaguntza aurreko urtekoa baino handiagoa izango da baina momentuz ez dakite zein proiekturi emango dioten, Tanzania edo Kenian dauden bi proiekturen arteko zailantza baitaukate. Azaroan, bi herrialdeak bisitatu ostean eta bertan egiten diren lan desberdinak ikusi ondoren, erabakiko dute zein proiekturi emango dioten urte honetan zehar lortutako diru kopuru gutzia.



Datorren urteari begira, Senegalen, eskola eta haurtzaindegi batean dagoen proiektu batean parte hartuko dute. Hori dela eta, gutxi barru egingo duten zozketa solidarioan lortutako diru guztia proiektu horretara bideratuta egongo da.

Aipatzekoa da, erakunde solidarioa denez, zozketa, liburuen salmenta edo edozein ekitalditik lortutako diru guzti-guztia proiektu desberdinetara bideratuta dagoela. Hau da, sortutako gastu ekonomiko guztiak (kartelak egitea, zozketa txartelak, kideak herrialdeetara joaten direnean dirua eskuan proiektu zehatz bateri emateko hezgarzin -txartelak...), erakundeko kideek haien poltsikotik ordaintzen dituzte.

Tusitala erakunde solidarioak bere lehenengo dirulaguntza Kenian dagoen umezurtz-etxe bati eman zion iazko uztailean

Momentuz oso erakunde txikia da baina espero dute auzoan ezagunagoa egiten den heinean gero eta partaide gehiago izatea proiektu gehiagotan laguntza eman ahal izateko eta guztion artean beharrak dituzten pertsonen bizitza zoriotsu eta errazagoa egitea lortu ahal izateko. Momentuz ez daukate egoitza fisikorik, beraz, haiekin harremanetan jarri nahi izanez gero idatz iezaiezu asociaciontusitala@gmail.com helbidera.



VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



MESÓN LUNA


*Etxeke berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

TOÑO VALDIVIESO: Artista plastikoa eta Marijaiaren egileetariko bat

“Aste Nagusian lan egiteak engantxatzen du”



Toñok bizitza erdia darama berak “aranduleoa” esaten dion arloan lanean. Arte Ederrak bukatu ostean pintura klaseak ematen, dekoratuak prestatzen, erraldoiak egiten eta konpontzen, eta panpinak sortzen lan egin du hainbat urtean. Panpin horien artean, bereziena Marijaia dugu. Duela 40 urte Mari Puri Herrero artista bilbotarrak sortutako pertsonaiaren panpina egitearen ardura hartu zuen Toñok duela hogeit hamar urte inguru Herreroarekin berarekin. Aste Nagusia hastear zenean, tallerrean egon ginen Toño eta Marijaiarekin berarekin. Zorrotzarra bata eta bilbotar unibertsala bestea, baina zorrotzar ikutuarekin ere bai, nola ez!

Lanbide berezia zurea, ezta?

Txikitatik marraztea, eraikitzea, ... oso gus-tukoa izan nuen. Arte Ederrak ikasi nintuen eta bizitzak "arte eta kulturaren mertzena-ria" izatera ekarri nau. Izan ere, nik neure sormenetiko lan gutxi egiten baitut. Egiten ditut, bai, baina gehienetan zerbaiteko bi-deratuta daude. Dena den, oso gustura nago nire ogibidearekin, eta nire kasuan arteaz bizitzea lortu dut. Erakundeentzat egiten dut lan gehienetan: Klaseak ematen, panpinak konpontzen eta sortzen... Horretaz aparte, hainbat artistarentzat erakusketak prestatzen ditugu, dekoratuak prestatu...

Eta lan horien artean, bereziena agian, Ma-rijaia dugu. Noiz hasi zinen lan konkretu hau egiten?

Ba ez dakit zehazki. Hogei urte inguru edo... Gogoan dut Mari Puri Herreroarekin Marijaia- ren panpina egiten aritu nintzen lehenengo urtea Arriagako balkoitik atera zen lehen- dabizikoa izan zela. Ez genekien Arriagako lehen solairuan sartuko zen... eta ozta-ozta sartzen da!

Eta nola hasi zinen horretan?

Ez dakit enkarguz edo lehiaketa bidez, Mari Puri Herrero artista handia da Marijaiaren sortzailea. Lehenengo Aste Nagusiko Mari- jaia hura gurasoen etxean egin zuen Mari Pu- rik. Nik aurretik ezagutzen nuen, jaietako pro- dukzioan laguntzen aritzen zen kolektiboan bainengoen eta zer edo zer apurtzen bazen, neu nintzen konpontzeko arduraduna. Ez dut gogoratzin noiz izan zen, baina Mari Purik bakarrik egiteari uko egin zion urtean, Uda- lak nirekin hitz egiteko esan zion, eta bion artean egiten hasi ginen. Hasieran Mari Purik azaldu zidan zelan egiten zuen berak eta ni gorputza egiteaz arduratu nintzen. Aurpegia margoztera ausartuko nintzenentz ere galde- tu zidan Mari Purik: jakina, baina bera hori egiteko gai den bitartean, nik nahiago dut be- rak egitea. Panpina bat baino gehiago bada Marijaia, artelana, edo gutxienez sormen ar- tistikoa, eta Mari Purik aurpegia egiten duen bitartean, horrelako zerbait gordetzen da. Nik gorputz osoa egiten dut, eta pixkanaka-pix- kanaka nire gauza eta ukitu gehiago sartu dizkiot.



Nola egiten da Marijaia?

Gorputza eta aurpegia egiteko, molde bana egin nuen aspaldi. Gomaespumaz egiten dugu panpinaren forma, eta gero lastoz be- tetzen da. Kontuz, lastoa ez da edozein belar! Gorbeiaiko magaletan hartzen da...! Buruaren atzealdea, igeltsuzko molde batekin egiten da. Oihala ere oso garrantzitsua da: kolorek ar- monia izan behar dute... Noizbait gertatu zai- gu pentsatuta eta erositako oihalak jarri on- doren gaizki geratzen zela ikustea. Eta berriro oihal dendara!

Noiz hasten zara honetan lanean?

Uztailaren erdialdean gutxi gora behera gor- putza egiten hasten naiz. Valentziako "fa- llak" egiten diren antzera, papera eta kartoia kolaztatzen da molde baten gainean. Hori lehortzen den bitartean, besoak egiten has- ten naiz. Egitura prest dagoenean, oihalak erosi behar dira, eta horretara Mari Puri Her- rero dator nirekin. Gero eta oihal gutxiago daude dendetan eta denboraz erosi behar dira. Pentsa honetarako oihal asko behar



“ Inauteriko sardina ere urtero egiten dut. Bilboko erraldoiak eta Gargantua konpontzen ere aritzen naiz askotan ”

dugula! Panpinean jartzen denaren bikoitza erosten da. Gehienetan, zorionez, ez da erabiltzen, baina askotan ezbeharrak gertatu izan dira (erredurak, urratuak...) eta zailagoa da batzuetan adabatzea berriro jartzea baino. Edo saiatu Aste Nagusian Bilbon oiha-lak erosten!... Behin oiha-lak izanda, soinekoa eta blusa josi behar dira. Horretan arrebak laguntzen dit, zorrotzarra bera ere. Lehen amak laguntzen zidan, ez nik ez dakidalako, baizik eta berak nik baino hobeto egiten zuelako. Eta lan hori bukatuta dagoenean, tailerrera etortzen gara eta Marijaia janzten dugu. Eta azkenik, Mari Purirekin hau ere, burua jarrri eta azken ukituak egiten dizkiogu.

Eta lanean, nola bizi duzu zuk Aste Nagusia?

Egunero egoten saiatzen naiz. Aste Nagusian jaietako ekoizpen laguntzaile gisa hogeitabost urte baino gehiago eman ditut jada lanean, eta gutxi gora behera, dena kontrolpean izaten dut. Txupinaren momentua oso hunkigarria eta larria da aldi berean. Arriagan egotea tokatzen zaigun gutxienetarikoa bat naiz, lanagatik, eta oso une zirraragarria da. Jaietan lan egiteak engantxatzen du duda barik. Txupina bota ostean, Marijaia balkoian dantzan hasten

denean, bizia hartuko balu bezala da, eta geroztik, beste modu batez hartzen da, eta urduritasun hori guztia ahaztuz doa. Une hori seme-alaba bat etxetik joan eta independizatzeko balitz bezala bada niretzat, kar, kar!

Aste Nagusian eta Marijaiarekin bizi izandako uneren bat nabarmendu behar bazenu, zein hautatuko zenuke?

Ba gero eta jende gehiagok badaki honetan aritzen naizela telebistan edo beste elkarrizketetan ikusita. Eta guretzat arrunta den gauza bat, honetan aritzen garelako eta horrelako enkar-guak egiten ditugulako egunero, haientzat oso gauza berezia dela entzutea polita da.

Honi esker, jaietan lanean aritzeari esker, jende asko eta oso interesgarria ere ezagutu dut. Nire bizitza sozialak honekin zerikusirik ez izan arren! Adibidez, erakusketa ugari pres-tatu ditut artista oso interesgarrientzat, baina gero ez noa inaugurazio ekitaldietara. Erosoa-go nago jende hurbilarekin auzoan zuritoren bat hartzen! Baina esan bezala, jende asko ezagutzen da, eta jaietan lan egiteko giroa, lan giroa izanda ere, jakina, oso giro atsegina izaten da, eta lehen aipatu dudana bezala, engantxatzen du.

Eta une txar edo estualdiren bat ere ziur izan duzula, ezta?

Beti kontatzen dudan bat badago. Oso larria ematen zuen baina gero ezer ezean geratu zena: Txikigunea Erripan zenean, konpartsekin akordio bat zegoen eta Erripako kaiara etortzen ziren eguerdiro Marijaia hartzera eta beraiek eramaten zuten arratsalde. Gaue-ro Arriaga antzokian egiten du lo Marijaiaik gauean ezbeharrik izan ez dezan. Baina egun horretan, goizean bere bila Arriagara joan ginenean, Marijaia ez zegoen Arriagan. Inork ez zekien non zegoen eta egun osoan zehar ez zen agertu. Inork ez zuen ikusi eta ez dakigu nork eraman zuen... Norbaitek parrandan eramango zuen edo, baina egun oso hori igaro ostean, hurrengo egunean goizean goiz, Arriagan zegoen berriro eta osorik. Udaletik beste berri bat arineketan egiteko ideia bazegoen jada mahai gainean, baina azkenean, zorionez, agertu zen.

Marijaiaz luze aritu gara, baina honez gain, baduzu beste enkargu eta lan esanguratsu-rik?

Ba jendearentzat ezaguna, adibidez, Bilboko Inauteriko sardina ere urtero egiten dut. Beste udalerrri batzuetarako sardinak ere bai... Bilboko erraldoiak eta Gargantua konpontzen ere aritzen naiz. Antzerki talde ugariarentzat ere lanak eginda ditut... Zorionez, lanak ateratzen zaizkit... Agian gehiago ere atera liteke, baina bizitzeko beste ateratzen dut, gustura egiten dut lan eta horrekin nahiko. Arlo honetan, lan bakoitza maitasunez eginda dagoela nabaritzea garrantzitsua da nire ustez, eta hori betetzen saiatzen naiz.



LABURREAN

Gustuko duzun artista bat?

Mark Rothko oso gustuko dut. Hasieran arte figuratiboa gustukoagoa nuen, baina denborarekin arte abstraktoa interesgarriagoa dela uste dut.

Zaletasun bat?

Hondartzan eguzkitan egotea eta ezer ez egitea.

Deskonektatzeko leku bat?

Ba hondartza. Lehen aipatutako "zaletasuna" praktikatzeko, kar, kar! Oso gustuko dudan beste gauza bat auzotik zuritoak hartzea da.

Parranda bat botatzeko lekurik onena?

Ba aurreko galderen esan bezala, ez dago nire auzoan zurito batzuk hartzea baino parranda hoberik.

Aste Nagusiko unerik politena?

Txupin aurreko orduak. Tailerretik hartu eta Marijaia agertu aurreko urduritasun eta aldi berean lasaitasun une horiek.

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarguz)
Eguneko menua

PICOS
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

Taberna
Aitor

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

Irailak 21 ostirala

21:30 Gaztetxean.

KONTZERTUA:

NARCO + SIANOAI + KLOWN

Sarrera: 10 / 12 €



Irailak 28 ostirala

21:30 Gaztetxean.

KONTZERTUA:

**KASO URBANO + SUBVERSIÓN X
+ PRIMEROS AUXILIOS**

Sarrera: 10 €

Irailak 30 igandea

13:30 Gaztetxean.

KONTZERTUA:

**GIUDA (Italia. Rock & Roll) +
OBSESIÓN FATAL**

Sarrera: 10 / 12 €

Urriak 5 ostirala

20:00 Gaztetxean.

ANTZERKIA:

El Yonki del Dinero.

Sarrera: 8 / 10 €

Urriak 6 larunbata

20:00 Gaztetxean.

KONTZERTUA:

**VARUKER'S (Punk hardcore U.K.)
+ RADIKAL HARDCORE
+ ULTIMO GOBIERNO**

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (azaroa - abendua) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi azaroaren 2a baino lehen.

Txerri-azpizuna kalabazin eta tipula karamelizatuarekin



10 pintxotarako osagaiak: Txerri azpizun bat, kalabazin bat, 2 tipula, 10 koilarakada azukre beltz, gatza eta piperbeltza.

Azpizuna xerratan moztu. Gatza eta piperbeltza gehitu gustuaren arabera. Kalabazina ere xerratan moztu eta plantxan egin azpizunarekin.

Tipula moztu eta oliotan suezitu gatz apur batekin. Suezituta dagoenean, azukrea bota eta eragin karamelizatu arte.

Ogia xerra mehetan moztu. Gainean kalabazina jarri, gero azpizuna eta bukatzeko tipula. Zotz batekin saskatu eta listo. On egin!

Zailtasun maila: Erraza

Prezioa: Osteguneko pintxopotea: 0,40 € + edaria

JAI ALAI TABERNA

Abaro estrata, 12. 48013, Zorrotza

Telefonoa: 94 490 12 59


Ostegunero pintxopotea, ostiralero kazolatxoak, sandwich, hanburgesak eta plater konbinatuak, eta igandero txibierro gozo-gozoak.





Erreka haizea.

Sonia González. Susa. 2018. 192 orrialde



Sara historia irakaslea da Florentziako unibertsitatean. Ikasturteko lehenengo egunean istripu txiki bat izango du, iraganeko ezbehar bat gogora ekarriko diona. Ahizpak deituko dio egun berean eta aitari azken bisita egitera itzuliko da jaioterrira. Baina gaztaroko mamuekin egingo du topo han. Sarak urteetan gorde du Kataluniatik ihes egiteko erabakiaren arrazoia, baina nobela autobiografikoa idaztea erabaki duenez, bere bizitzaren puzzlea osatzen hasiko da pixkanaka...

Egunerokotasuneko bizipenetatik abiatu da Sonia González liburu honetan, munduaren gaineko ikuspegi

kritikoa emateko. Erreka haizearen epeltasun itogarria lagun, testu laburrez osatutako arnas luzeko liburua da hau. Harremanetan estutzen gaituzten botere desberdintasunez, isilpenaz, heriotzaren hautu kontzienteaz. Zoramenara eta heriotzara hurbildu eta zauriak sendatzeaz. Minaren geografia izan daiteke saiakera hau, edo bizitzarena berarena.



Haxotz:

H (Autoekoiztua) 2018



Hegan. Hamar. Haxotz. Bilbo eta inguruetako taldeak 10 urte bete ditu aurten. Aurrerapen moduan "Hegan" abestia aurkeztu ziguten ekainean. Oraingoan lan osoa entzuteko aukera eskaini digute hilabete askoren lanaren fruitua dugun honako "H". Grabaketa, nahasketa eta masterizazio prozesua Enkore eta Empty Files taldeetako kitarrajole Urtzi Izaren estudioan burutu dute (bera izan da diskako kolaboratzaile bakarra).

Soinu gordina eta naturala lortu du boskoteak 7 abesti berriaz osatutako bosgarren lan honetan. Nabari da taldearen eboluzioa azken urte hauetan. Estilo bakar batean finkatzea zaila da, hainbat iturritatik edaten baitute. Orotariko musika entzuten duen horri interesgarria izango zaio bizkaitarren lan berria. Etiketa arraroak ez jartzearen, rocka eta metalaren arteko nahasketa dela esango genuke, non Jokin abeslariaren ahots erregistro desberdinak kitarra eta oinarri erritmiko pisutsuarekin ederki nashaten diren. Bestalde, eta zuzenekoei begira, "Hamar urte hegan" izeneko bira hasi berri dute. Galduko dituzu, ala?

Ibai Barrios

Doinua:

Baserrian jaio nintzan.

uda igaro denean

atzerantz ipini bista

lana aisia parranda

ta ezin amaitu lista

ni kanpoan ibili naiz

munduko kontrabandista

kanpokoia ezagutuz

gurea ulertu apika

arazoez jabetuta

prejuizioak erantzita

bidaiatuz ustez gara

askatasunaren txispa

inkoherentzia ordea

eguneroko kronista

eta konturatu behar

gu geu garelako turista

Asier Urkiza

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrata, 12
94 490 12 59

ROCKET
TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

AUTO ESKOLA
KAIKU

Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfn: 94 427 88 10

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
46013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian “iritzia” jarrita. Eskerrik asko!



Norberaren bizipenak: irakaspenik garrantzitsuenak.

Atzean geratu dira oporrak, eta gure seme-alabek gogotsu ekin diote ikasturte berriari. Aldapan gora, ikasturteko lehen irribarreak margotu dira gure txikien aurpegietan, uda osoan ikusi ez dituzten lagunekin berriro ere elkartzeko aukera izan baitute.

Ettxera itzultitakoan, semeari galdetu diot ea zer egin duten lehen egunean, eta oporrei buruz aritu direla erantzun dit. Jarraian, galdera bat: *“Ama, non dago Tiaret?”*, *“Ez dakit, begiratuko dugu. Zer ba, laztana?”*. Antza, haren ikaskide batek han eman du uda, Aljerian, familia eta lagunak ikusten. Bere logelako mundu-mapan bilatu dugu lagunaren herria, eta oso kuriosoak garenez biok, hango bitxikerien gaineko informazioaren bila jarri gara: bertakoei nola esaten zaien, zein hizkuntzatan hitz egiten duten, zein animalia eta landare dauden zonaldean, zenbateko distantzia

dagoen handik Euskal Herrira... Gauza bera egin dugu beste hainbat herrirekin: Bacau (Errumania), Soria (Espainia), Tétouan (Maroko), Guaranda (Ecuador)... Semeak adi-adi entzun ditu azalpenak, liluratuta, eta nik ere aitortu behar dut ikaragarri disfrutatu dudala.

Hurrengo galdera: *“Eta zergatik haien familiak eta lagunak bizi dira hain urrun?”*. Horretaz ere hitz-aspertua izan dugu, eta ondorioztatu dugu oso zorioneakoak garela: alde batetik, gure herrian bizi ahal garelako maite ditugunen ondoan; eta bestetik, gure eskolan, gure auzoan, dagoen jatorri eta kultur aniztasunari esker asko ikasi ahal dugulako munduaz eta bizitzaz.

Horretarako, ordea, jakingura izan behar dugu; eta hori da, askotan, helduoi falta zaiguna: ikasteko gogoia, besteak ulertzeko gogoia, azken finean, pertsona moduan hazteko gogoia. Gure gotorlekuan ixten gara, ez gara bertatik ateratzen, ez diogu beste inori bertara sartzen uzten.

Horregatik dut gogoko Zazpilandako Eskola, euskal kultura eta euskara ardatz izanda, gotorleku barik, mundu zabalera begirako leihoa delako. Izan ere, jatorri, hizkuntza, sinismen eta kultura desberdinetako haurrek elkarrekin eta elkarrengandik ikasi ahal dute bertan, eta horri esker, gure seme-alabek kulturartekotasuna, enpatia, aniztasuna, elkartasuna, desberdinarekiko begirunea ... zer diren jakiteko eta horiek barneratzeko aukera izango dute. Irakaspenik garrantzitsuenak ez baitaude eskola-libururetan, norberaren bizipenetan baizik.

*Alaitz Aldabaldetretxu.
Zazpi Landa eskolako ama*

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa: **zmorrotz@gmail.com**



Euskaraldia: lau ideia

Euskaraldia lehen aldiz biziko dugu aurtengo udazkenean eta ilusioz gainezka gaude euskaraz bizi nahi dugunok, herri elebidun honetan nork bere aukera beste guztiekiko errespetuz eta era guztiz librean hartu ahal izatea amesten dugunok. Izan ere, ezer gutxi da mundu honetan zuri ala beltz, ezer gutxi guztiz homogeen, eta elkarriketa mistoek ere toki izan dezakete gurean. **Ulermenean baitatza ekimen hau.**

Ariketa soziolinguistiko honek arrakasta izan dezan, **eguneroko hizkuntza ohituretan eragin** dezan alegia, Peio Jauregiri aditu nizekion lau ideia ondo ulertzea funtsezkoa da. Al-bait argien paratu nahi izan ditut ZM honetan:

1. Euskaraldia ibilbide luzerako ekimena dugu.

Zentzu honetan, helburu lorgarria da, akaso, 20 urtean euskal herritarren %100 heltzea *Belarriprest* izatera.

Denok *Belarriprest* garela, orduan hasiko gara benetako hizkuntza-normalizazioan; ordura arte, horretarako baldintzak prestatu baino ez dugu egingo.

2. Belarriprest figura da gakoa.

Hizkuntza erabilera kolektiboa da: elkarriketa. Gutxienez bi parteren aldetik behar da jarrera. Eta *Belarriprestek* desblokeatuko dute “partida” *Ahobiziok* jokatu AHAL izateko. *Belarriprestek* arinduko dute euskaldu-



non gaineko zama, banatu. Tribu sentsazioa areagotu eta babesa sentiaraziko dute, zenbat garen konturaz.

Joera naturala dugu komunikazioan berdintzea, eta bi hizkuntzatan aritzeak simetria apurtzen du. Baina oraingoan ez, *Belarriprestak* baitaki *Ahobiziak* EZIN duela, hartutako konpromisoagatik, erdaraz egin; beraz, berdintze natural horren alde, euskaraz SAITU beharko da *Belarripresta*.

***Belarriprest* gehiago behar ditugu Ahobizi baino.**

3. Euskaraldia ez da euskararen aldeko ekimena, euskarazko ariketa soziala baizik.

Hain zaila ez dela ikusi eta ikusarazteko entsegu erreala izango da, pentsaera aldarazteko praktika soziolinguistikoa.

Baina horretarako, kontuz! *Belarriprest* txapak EZ du esan nahi “euskararen alde nago”: komunikazioa BERMATU behar da.

Eta *Ahobizi* txapak EZ du esan nahi “euskalduna naiz, euskaraz badakit”, “egin EGINGo dut” baizik: konpromisoari eutsi ezean, hobe *Belarriprest* txapa hartu; bigarren aukera honek mesede egingo du, eta aurrekoak min.

4. Helduen jokaeraz ari gara.

Ez bizkareratu auzi hau haurrei, orain arte egin dugun bezala: haiek imitatuko gaituzte. Helduon ardura da eredu sozial izatea.

Inigo Martinez

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Jakina da komunikazioak, hitzez irudikatutakoa baino askoz ere gehiago hartzen duela barne. Horregatik, hizkuntzaren erabilera sexistatik haratago, irudien erabilera ere sexista izan daiteke.

Hala nola, enpresek publizitatearen bitartez, erosleek arrakasta eta haien produktuen arteko erlazioa egin dezaten, gure eguneroko bizitzatik oso urrun dauden egoerak, baina askorentzat desiragarriak direnak, presentatzen dituzte. Eta askotan, haien produktua saltzeko helburuarekin, emakumeen gorputza erreklamu bezala

erabiltzen dute, batez ere objektu sexual moduan presentatuz.

Askotan gainera, gizon eta emakumeen arteko erlazioetan, sexu bat besteari subordinatua presentatzen dute, halako egoerari legitimazioa emanez. Beste batzuetan, estereotipatutako eszenetan, emakumeak eta gizonak rol tradizionalak betetzen ateratzen dira, zaintza eta etxeko lanak emakumeei bakarrik dagozkien rola izango balira bezala. Edo emakumeak edertasunarengatik guztiz arduratuta, emakume izateko modu desberdinak ezkatutuz eta feminitatearen alde bakarra erakutsiz, hau da, alde hegemonikoa, kontsumoarekin oso lotuta dagoena.

SALAKETA ARGAZKIA



Toponimoa zorrozituz

Berriro ere, Anton eta Gilen aldarrika ibilitako auzoan erakundeek jarritako errotulu batek arreta eman digu: Montebideo etorbideko adinekoen elkarteko atekoa oraingoan. "Zorroza" toponimoa asmatua edo benetan existitzen den zalantzan jar daiteke, baina euskarazko bertsioan ere gaizki agertzea... Udalaren irudia duen errotulu batean horrela gertatzeak kritika "zorrotza" merezi du.

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

Monitoriza zaitez!

Zure denbora eta esperientzia
besteen eskura jarri nahi baduzu,
eta gizartea eta auzo hobea erai-
kitzeko prest bazaude, Gure Lurra
Elkarteak ateak irekitzen dizkizu

Gure Lurra Elkartea, bolondresak egiten duten lanean oinarritzen da hein handi batean. Hori dela eta, gure helburu bat bo-rondatezko lana auzoan sustatzea da. Zure denbora eta esperientzia besteen eskura jarri nahi baduzu, eta gizartea eta auzo hobea eraikitzeko prest bazaude, Gure Lurra Elkartea ateak irekitzen dizkizu. Gizarte ere-muetan parte hartzeko gogoia izatea baino ez da behar! Gure Lurrako begiraleen tal-deak prestatutako egitaragua ez da baka-rrik udaleku edo umeen inguruan onarritzen, gizarte heziketaren begirada zabala hartzen du abiapuntutzat.

Gure Lurrari parte hartzea gustatuko li-tzaizuke?

Urrian Monitoriza-t izeneko programa hasiko da, gazteei zuzenduta. Beraz, 17 urte edo gehiago baldin badituzu prest zaude for-makuntza hau jasotzeko eta monitoreen tal-dean sartzeko. Formakuntza honek bakarrik Gure Lurrari bolondres lanak egiteko balio du, ez baitu aitorten ofizial bat. Formakuntza honek urte bateko luzera du eta atal teori-



koaz aparte hainbat bizipen praktiko izateko aukera egongo da (irteerak, Bilbotik kanpo-ko proiektuak ezagutzea,...)

Zuen laguntza behar dugu auzoa kolorez eta irribarez bete ahal izateko!

Informazioa jasotzeko eta honi buruzko be-rriak izateko:

Facebook: Gure Lurra Elkartea

Gmail: ctl@gurelurra.org

Lokala: Fray Juan kalea, 33



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

Regalos
Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

TABERNA
INDARRA



Abaro estrata, 10



ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*



Nagore

Primeran dagoela
uste dut.
Emakumeen ahalduntzea
bideratzen duten neurri
guztiak oso ondo
iruditzen zaizkit.



Iñigo

Entzunda neukan eta
oso ondo iruditzen zait.
Emakumeen segurtasunari
eragiten dioten neurri
guztiak positiboak direla
uste dut.

**Emakumeak
bi geroalekuren
artean jaisteko
aukera
Bilbobusen:**

Zer deritzozu?

Iratze Pérez



Monika

Alde batetik positiboa da
emakumeen segurtasuna
handitzen duelako, baina
bestetik, sasikume batzuen
eruz, emakumeak ezberdin
jokatzer aimentzen duen
neurria ere bada... Egunen
baten emakume guztiak
kaletik guztiz libre ibiltzea
espero dut!



Itziar

Nik ez dut erabili, baina
oso ondo iruditzen
zait, emakumezkoen
segurtasunerako oso
baliagarria den ekimena
dela uste baitut.



Katy

Ondo iruditzen zait,
baina emakumez aparte,
persona guztientzat,
nerabeentzat batez ere,
erabilgarria izatea
gustatuko litzaidake

BETAURREKOAK ibarrera luxury OPTICA
HURBILETIK EDO
URRUNETIK IKUSTEKO

69€

*Graduazioaren baltzen: zilindroko -2 eta esferiko +4. Monokulak organikoki zuzen zuzentzen dira.

TABERNA
JATETXEA

LOS LEONOS

Vicente Zabala parrokoa, 16

cafe txinbo

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

Bilbon euskaraz



▶ www.bilbaoeuskaraz.eus



Bilbao

¡Kasi Mi Kasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe



ETOP LARREN ANITA ETORRORRUTIA

Pisadia etxalde, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



ETOP ZORROTZA LARREN ANITA

Ikastalde etxalde, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.leszorrotzabih.izkuntza.net

Zorrotza (Bilbo) jaiak '18

> irailak 21, ostirala 23:00

• TechHouse gaua •

- DJ SANS
- DJ MAROTO
- DJ MIKEL TX Y DJ LANK
- LEVEL GROOVE
- CHRIS RIOS

> irailak 23, igandea 19:30

HAVANA 537 talde kubatarra

> irailak 22, larunbata 23:00

KRESALA

> irailak 27, osteguna 21:00

HIJOS DE TU IGLESIA: **LA POLLA** ri tributoa

> irailak 28, ostirala 23:00

THE BON SCOTT BAND

AC/DC tribute Band

GUNS N' CLONERS:
GUNS N' ROSES
tributoa

METALLICA:
METALLICA
tributoa

> irailak 29, larunbata 23:00

KOSMOS

> irailak 30, igandea 19:30

LA TOKOKERA

* Kontzertu guztiak Azoka plazako txosnagunean izango dira

ZORROTZARA HELTZEKO:



Bilbobus
• 18 • 85 • 88

Bizkaibus
• A3137 • A3144 • A3336 • A3341 • A3342 • A3343

• A3115 • A3116 • A3122 • A3136



renfe
• C1 • C2 (Zorrotza)

feve
(Zorrotza)

metro bilbao

Gurutzeta. Geltokitik 10 minutu oinez